



Eman hegoak euskarari



Poza aldarrika

Aritz Gorrotxategik badaki sakonagoa dela poza tristura baino, zailagoa baita aurkitzen

FELIPE JUARISTI



Beethovenen bederatzigarren sinfonia, bere azkena, ezagunagoa da 'Poza Ereserki' gisa. Schillerrek 1786an idatzi zuen poema batean dago oinarrituta. Azken sinfonia pozaren aldarrikapenaren tresna izateak asko esaten du Beethovenen beraren asmo eta helburuez. Letraren zati bat gogoko dut guztiz: «Adiskide bat ondoan duena, gizon edo emakume maitea (gaur egungo parametroen arabera) berarengana erakarri duena, bil dadila gurekin pozaren jai honetara. Baina hori ere lortzerik izan ez duena doala gure artearik urrutira». Pozaren aldarrikapena, azken finean, adiskidetasunaren gorazarrea da. Adiskide

gabeak pozik ere ez du, ez erakusteko, ez gorde-tzeko. Harro egoteko motiboa ematen duena erakusten da, nahiz eta askotan motiborik gabe ere harrokeria erakutsi. Euskaraz oso bereizgarriak dira, badakigu, tasunak eta keriak, aldeak eta ifrentzuak, aldekoak eta aurkakoak, betiere ez badira horiek aurkari.

Poetak triste fama dugu, ez dago zalantzarik. Amurizaren bertso famatu hark ematen digu doinua, Imanolen ahotsean: «Euskal herriko poeta, kanposantuko tronpeta». Tronpeta ez denean profeta; euskal poetak ere Jonasen kastakoa dela uste izan du behin baino gehiagotan: erlijioaren ukendu eta mendua, noski. Ez dira aspaldiko kon-

tuak. Poetak tristea izateko joera du, munduaren karga eta zama beraren gain hartzekoa, eta hitzak harriak balira bezala erakustekoa, ez dezala inork esan poesia zerbait alferreko eta hutsala dela, langintza baizik, artefaktua.

Aritz Gorrotxategiren azken liburuak 'Uda bete' du izenburua. Hortik abiatuta, txirindulari profesional baten gisa, eta irudiak irudi, Paveserenganaino iritsi naiz: 'La bella estate'. Javier Aramburu donostiarrak badu kanta bat, 'Family' taldea osatu zuenekoan argitaratua, izen berdinarekin: 'El bello verano'. Negua noiz amaituko da goela esaten dute kanta horretan, itsasoan igeri egiten has-

teko. Igerizalea da Aritz, eta negua igaro duela esatea metafora baino gehiago da, negu batzuk ez baitira negu betean kabitzen, uda batzuk uda bera lehoreta elkor uzten duten bezala. Urtaroaz haratago doaz. Itsasozalea ere bada poeta, ez du horretarako karnetik erakutsi behar. Nik neure talaiatik ikusten dut itsasoa, Sagueseko alderdi horretan, surflarien gudu-zelai, maitaleen atariko proba, paseatzaileen ohiturazko zeregin. Itsasoan murgiltzea bizitzan murgiltzea da, urari aurre egitea baino urarekin batera joatea, berak dakien tokira, gure nahi dugun lasaitasuneko portura, tristurak oro amaitu eta zorion printzak argigarri datuskigunera.

«Tristura bezain sakratua/

Poetak triste fama dugu. «Euskal herriko poeta, kanposantuko tronpeta», zioen Imanolek

izan daiteke poza», irakurtzen da liburuan. Baina Aritzek badaki sakonagoa dela poza tristura baino, zailagoa baita aurkitzen. Putzu eta hobi handiak zulu behar. Gure gogo-bihotzetan behera jaitsi eta orduan ere barrenera jo beharra dago, pozaren urrea atera eta argitara ekartzeko. Ez gara, ez, poetok pozaren aldekoak izan. Baina, dena dela, zoriona bezala esku-za dago, nahi izanez gero: «goizalba bezain sendo/ enigma bezain arin».

Pavesek bere buruaz beste egin zuen, Turinen, Nietzschek, zaldi jipoitu, egurtu eta erori baten aurrean, gizaki hutsa zela jakin zuen hirian. Uda joan zitzaizen bie ala bie, eta neguaren ataria zeharkatzeko indarrik ez. Nietzschek espirituz beste egin zuen.

Aritz Gorrotxategik uda bete eta amaigabea bizi nahi du. Neguak, izan ere, denok kalteberak garela adierazten digu. Eta, min eta hotza jarraika eta inguruka ditugunean, zer hobe adiskidetasun beroan gordeztea baino?

Gure garaiaren adierazgarriak

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Maiz entzuten dugu poesiak giza kontzientzia astintzeko aldarri gisa funtzionatu beharko lukeela eta poeta ezin dela egon, hortaz, bolizko dorre batean, munduari iskin eginez. Hortxe kokatu beharko genuke Xabi Bordaren poema-liburu berria. Izan ere, tituluaren izebergarren metafora-zein alearen lau ataletan ('Iglua tantaka', 'Hozkailu matxuratua', 'Hego haizea ipar polon', 'Glaziar berrien erditzea') islatzen da mezu argia.

Ezinegona eta jarrera kritikoa gauzatzen dira obra honetan suntsipen eta desagertzeko zorian dagoenaz. Editoreak azaldu duenez, klima aldaketaren aipamenak marko bat dira olerki hauetan, domestikotasun baten atze-oihala, alegia. Egunerokoaren berariazko behaketatik galeraren sentimendua eta hondamendiaren zantzuak kausitzen ditugu: «mundua joan zitzaitzun amore eman gabe/mundua joan gure baitatik/

negu honen udaberri guztiak eramanez». Ildo horretatik, gizarte garaikideak dituen gaitzak azalerraten ditu Bordak, hala nola, suntsitzen ari garen planeta-ekologia, zentzu zabalean-, baita nabardura sozialak egoera ekonomiko eta krisialdiaz ere, edota bizimodu axolagabeaz hurkoarekiko, gu geu «automata matxuratu» bihurtu garelarik (poema baten izenburua).

Poeta inguratzen duen oroaren kontzientziak ahalbidetzen dio errealitatea konprenitu eta adieraztea metaforen orijinalen bidez, esaterako, matematika eta zientziaren lexikoa erabiltzean, edo transplante bat eta arrandegia elkartzean bertsoetan, irudi iradokitzaileak oso.



URTU AURRETIK
XABI BORDA
Susa. 88 orr.
13,50 euro

Egunerokoak sorrarazten duen deserosotasunaren aurrean jartzen gaitu Bordak, errealitate konplexua zenbait angelutatik erakutsiz, irakurleok nahi ala nahi ez. Ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna dira gure munduaren adierazleak eta horren kontzientzia hartzeraz gonbidatzen gaitu, aldaketarako itxaropenari eutsi behar zaiolakoan, nonbait. Gizakiok desagertu baino lehen.

LABUR LABUR

Ura Bere Bidean ekimena urrian izango da bueltan

EL CORREO

2021eko abenduan lehen edizio arrakastatsua egin eta gero, Ura Bere Bidean ekimenak musika sinfonikoa, 1970eko hamarkadatik gaur egunera arte euskal musikariek idatzitako kantu klasikoak eta ahots ezagunak batuko ditu berriro.

Ura Bere Bidean '22 urriaren 22an egingo dute Barakaldoko BECen, 20:00etatik aurrera. Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Bilboko Koral Elkartearekin batera, Fernando Velazquezek gidatuta, Mikel Urdangarinek, IZAROK, Anje Duhaldek, Marenek eta Gatibu, Zea Mays, En Tol Sarmiento, Bulego, Mäbu, Amak, Shinova, Urtz, EH Sukarra eta Su Ta Gar taldeetako kideek kantatuko dute.

Kantuon bertsio sinfonikoak grabatu dituzte dagoeneko BOSeko musikariek eta artistek eta uztaila amaieratik



La Oreja de Van Gogh taldearen abeslaria den Leire Martínez, iazko edizioan.

aurrera argitaratuko dituzte. Aurten, ikuskizunean joko dituzten kantuen bertsio sinfonikoen partitura laburtuak egingo dituzte, abesbatzen artean eta musika irakaskuntzako zentroetan zabaltzeko.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

3 Ez erran inori

Maddi Ane Txoperena. Elkar

4 Izurdeen aurreko bizitza

Kirmen Uribe. Susa

EZ FIKZIOA

1 31 ipuin

Anton Txekhov. Elkar

2 Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martínez. Elkar

3 Besteadean

Jaione Dorai/Ernesto Prat. Txalaparta

4 Eman zesarri zesarrena

Jose Iriarte. Intxorta